



Errekan gora
Jexuxmai Lopetegui
Baga Biga, 2013

Korrontearen kontra esploratzen

JEXUXMAI LOPETEGIK (Zarautz, 1956) bakarka kaleratu duen azken diskoa, egilea bera bezain inkorfomista da, izenburuan ikusten denez. *Errekan gora*. Izokina bezala, musikaria gustura sentitzen omen da korrontearen kontra errekan gora, saiakera horretan ezustekoa han goian dagoela amestuz. “Musikan, bizitzan bezala, berezko indar bat ageri da ezezaguna esploratzeko, eta bilaketak egitera bultzatzen zaitu, bilatzen ari zaren hori zer den ondo ez jakin arren”.



80ko hamarkadan eman zen ezagutzera, Akelarre taldeko abeslaria zen garai hartan. Euskal Herriko ehunka plaza bete eta taldearekin 5 disko grabatu ondoren, bakarkako bideari ekin zion 1994an. Geroztik, laupabost urtekin behin kaleratu ohi du diskoren bat. Orain hurrena, seigarrena, iazko udan grabatu zuen, Zarauzko Nohizbehinka estudioan, Unai Moraza musikari eta teknikaren laguntzaz.

Hamalau abestietatik zortzi Jexuxmaik berak idaztitakoak dira. Tarteka etorria izaten duela eta hala-koetan musikariak istorio duin bat idazteko aukera aprobeztatzen omen du. Azken lan honetan, bere sorterriak, bere sustraiek eta bere inguruneak presentzia handia izan dute testuetan: erreka, itsasoa, euria, ibaia, erribera, putzuak, ura... eta, azken finean, natura bera. Betidanik hain gertu eta inkontzientean barneratuak izan diren kontzeptu horiek oharkabean txertatu ditu.

Aurreko diskoetan bezala, oraingoan ere hitzek aparteko garrantzia dute. Artistak argi du kantu txukun bat sortzeko ezinbestekoa dela testu egoki bat hautatzea. Azken lan honetarako ere bere diskoetan ohikoak diren idazleen poemak aukeratu ditu. Mítxel Murua, Pako Aristi, Jon Benito, Harkaitz Cano edota kuttuna duen Joseba Sarrionaindiaren testuak musika-ahal izatea zorte handia eta ohorea dela adierazi du. Azken lan honetan abeslari zarautzarrak lagun eta lan-kide izan dituen Noizbehinka taldeko musikariak bildu ditu beste behin ere. David Etura (bateria),

Satxa Soriazu (teklatuak), Aitor Arozena (baxua) eta Xanet Arozena (gitarra) izan ditu bidelagun grabaketetan. Musikari laguntzaileru ugari ere izan ditu alboan: Bixente Martinez, Jorge Abadias, Julen Izarra, Amaiur Cajaraville, Alberto Garcia, Sergio Villar.

Erraz konformatzen ez den musikaria da Jexuxmai. Bere erreka partikularrean saltoak

berrituz eta estilo desberdinekin jolastuz aberastu da. Aurreko diskoan, adibidez (*Izar Uxo*, Elkar 2009), bere ohiko lengoaiatik ateratzeko arriskua hartu zuen rock estilotik datorren musikariak, eta lan berri honetan *Gogoratu*, *abaztu* eta *Beste swing bat* kantuetan Satxa Soriazu, Kike Arzar eta Juanma Urriza jazz hirukotearekin esperientzia errepikatu du.

Berdin dio jazz, balada, countrya, balsa edo rocka izan. Musikariaren zigilua nabarmena da. Berezko ukitua emango dio kantuari, ezustean harrapatuko zaituen erritmo hauskorra agertuko da, akorde konplexuren batek piztuko du zure jakinmina, abestiak indarra behar duen une zehatz horretan ondo enpastatutako ahotsek egingo diote korua, eta erregistro berean ibiltzearen abantaila luzatuko dizu, bere tinbrea berehala ezaguna egingo baizaizu.

Antton Olariagak egindako ilustrazioak musikariaren esentzia sumatu du eta bereari eutsiz korrontearen kontra joateko animoak mantentzen dituen “rock-eroren” erronka ederki azaleratu du: zuhaitzaren enbor sendo bat ageri da errekan, adarrak bota ditu errekaaren goiko aldean zer dagoen jakiteko irrikak bultzaturik, baina sustraiak ondo erroturik ditu eta korrontearen nondik norakoak ez du ernaietatik aterako.

Erritmo desberdineko kantek aniztasunez busti dute diskoa, erreka ugaritatik edaten duenaren zapora gozoa ekarriz. Korronte desberdinetako ur azkarrak eta geldoak zurrumbilo dotore honetan jaurti dira. Zipriztin gaitzala. ■

Olatz Korta

